

OTSAILAK 4, 19:00etan

MARTIN UGALDE KULTUR PARKEA
(Andoain)

Joxe Manuel Odriozola
Mirari Bereziartua
Joseba Ariznabarreta

OHARRA:
Hitzaldia euskaraz izango da

Arrazonamendu
politikoa
berreraikitzea,
askatasunerako
arma bat



MAHAI-INGURU ZIKLOA:

ARRAZONAMENDU POLITIKOA BERRERAIKITZEA, ASKATASUNERAKO ARMA BAT

ORREAGA Politikarako Iritzi Taldeak, "arrazonamendu politikoa berreraikitzea" izenburupean, iazko udazkenean hasitako mahai-inguru sortari amaiera eman nahirik, 2009ko urte hasiera honetan antolatu du, oraingoz azkena izango den ekitaldia.

Gure xedea hauxe da: gure herriak bizi duen egoera politikoari buruz, zerbait esatekorik duen, eta herri honen askatasunaren bidean, bere harri-koskorra ekarri nahi duen jendea, mahai baten inguruan elkartzea.

ORREAGAko kideon iritziz, herri honen egungo egoera politikoa, estrategiarik eza eta noraezean ibiltzea da. Egunez egun, agerikoagoa da ikusten duguna: gaurko estatutu-sistema, eta etorkizunean, inperialistek edota beren burua abertzaletzat duten indarrek eskaini diezazkiguten autonomiak edo erregimenak, kale itsu eta amarruak besterik ez direla; konturatu gabe, epe luzean edo ez hain luzean, gure herriaren heriotza eragingo dute.

Mahai-inguru hauek, asmo horiek salatzeko aukera izango dira, eta norabidea aldatzeko garaia heldu dela, ozenki eta garbi esateko. Arrazonamendu politikoa berreskuratu behar dugula, zortzi mende dirauen okupazioak larriki zauritutakoa. Premiaz irten behar dugula okupatzailearen logikatik at.

Egunaren 24 orduetan, espainiar eta frantziar potentzia okupatzaileen mesedetan eta nominapean ari diren komunikabide erasokor sorta itzelak ezin hobeki igorritako logikatik at.

Kontrapisua izaten saiatuko gara ba. Horretarako, mahai inguru sorta hauetan parte hartzeko gonbidapena onartu duen jende aditua badugu; eskerrik beroena beraientzat.

Politikari buruz eztabaidatuko dugu, benetako Politikari buruz. Baina ez bikote espainiar-frantziarrak eta beraien bertako kolaboratzaileek ahalegintzen diren moduan, baizik eta bere benetako kontzeptuzko neurrian: politika ez da boluntarismoa, zientzia bat da, eta beste zientziek bezala, bere arauak ditu.

ORREAGAko kideontzat, politika, askatasuna lortzeko ezinbesteko tresna da, eta horretan aritzea, norabide zuzenean gauden seinale. Horrez gain, gurea egingo dugu Ani Di Francoren esaldia: "*Egoki helduz gero, erreminta oro arma bat da.*"

Hau guztia dela eta, gure herri honetako abertzale sutsuenok, sahiestezina den hitzordua dugu udazkenean, antolatu ditugun mahainguruetan. Gure helburua hauxe da: kultura politiko berri hau Euskal Herri osoan zabaldu eta garatu ahal izatea. Helburu hori lortzea, gure esku dago soilik.

"Oinarriak falta zaizkigu."

Joxe Manuel ODRIOZOLA

"Herri honetan ezin gara dedikatu bakarrik, kentzen digutena behin eta berriro sortzera. Lortu behar duguna zera da: geurea denari, gorputz juridiko-administratibo propioa ematea. Eta hori, bakarrik, geure estatua (ber)eraikiz egin dezakegu. Horregatik, historia kontutan izanez, gaurko errealitatea gure identitatearen arabera gauzatzeko, guztion indarrak hori burutzeko estrategiak bideratzen ipini behar ditugu."

Mirari BEREZIARTUA

"Botere politikoa, beti biolentziaz sortua eta mantendua, instituzionalizatu egin behar da, bere ezaugarriak diren iraupena eta eraginkortasuna anplifikatzeko helburuarekin."

Joseba ARIZNABARRETA.